

ALKATEAREN MEMORIA, 2020KO AURREKONTUA

Udalaren kontuak ezagutzen dituztenek badakite zein zaila den gastu arruntari sarrera arruntarekin aurre egitea. Zailtasun hori areagotu egiten da Aurrekontua aurkezteko garaian, inbertsioak egiteko baliabideak aurkitu behar direnean.

Gure aurrekontuei dagokienez, 2020ko aurrekontuan **INBERTSIOEN** atala 800.200 eurokoa da, hau da: udal aurrekontuaren % 3,85. Kopuru hori handia al da? Urria al da? Nork bere iritzia izango du horri buruz, baina badago datu objektibo bat: “behi honek ez du gehiagorako ematen”.

Aurrekontu proiektu honetan, besteak beste, honako inbertsio hauek aurreikusten dira: jarduketak Andonaegi jauregiaren inguruan eta jarduketa puntualen bat eraikin berean (100.000 euro); kolektibo jakin batzuei (jubilatuen etxeak, ludotekak...) zerbitzua emateko hainbat udal eraikinen birgaitzea; udalerriko haur-parkeak hobetzeko partida bat; gure kaleetako zoladurak konpontzeko partidak, hau da, hobekuntzak egiten jarraituko dugu arlo horretan, 2019an 115.000 euroko inbertsioa egin ondoren, aurrekontu parte-hartzaileen ondorioz; inbertsioak ur-zerbitzuan; eta Donibaneko saneamendurako 100.000 euroko ekarpena, urte askotan “zorroan” egon ondoren, 2020an abiatuko den inbertsioa. Laster berri onak izango ditugulakoan nago.

Alkate naizen aldetik, tristea da politika bat edo beste egiteko erabakia nire esku ez egotea. Izan ere, ez dago nire esku erabakitzea zein arlo edo programari emango diogun lehentasuna, edo zein politika egingo dugun; aurrekontu urria dugulako, eta beti izan dugulako. Behin eta berriz errepikatuko dut, ez dudala atsedunik hartuko eta konponbide bat bilatzen jarraituko dudala, aurkitu arte. Hori dela eta, programa puntualen bat abian jartzea eta partidaren batean gehikuntza edo murrizketa jakinen bat egitea salbu, udal gobernu guztien aurrekontuak oso-oso antzekoak dira, behin baino gehiagotan esan dudana bezala. Azken batean, ezin dugu nahi adina zuzkidura eta diru-kopuru jaso gure aurrekontuetan; daukagunarekin moldatu behar izaten dugu, eta hala egin dugu urte askotan, gehiegitan aukeran.

Hala ere, alderdi batzuk azpimarratu nahi ditut. 2020ko ekitaldirako aurrekontua 20.791.436 eurokoa da, hau da, 2019ko aurrekontua baino % 3,87 handiagoa.

GASTUEN atalean jasotako inbertsio batzuk aipatu ditut lehen. Epigrafe honetan erantsi beharra dago, urtearen buruan gogor lan egiten dugula, beste administrazio batzuetatik finantziario gehigarria lortzeko, gobernu honen aurreko legealdian ezarritako ildoari jarraikiz; izan ere, ildo horrek beti eman izan ditu fruituak, udal bozeramaileraren batek “adabakiak” direla egozten digun arren.

Gastuen atal honetan berean adierazi beharra dago, inbertsioez gain, Udalak herritarrei zenbati zerbitzu ematen diela. Horietako batzuk udalaren langileekin egiten dira (1. kapitulua), eta kapitulu hori 9.603.632 eurokoa da; beste batzuk kanpoko kontratazioen bidez egiten dira (2. kapitulua), eta kapitulu hori 6.974.029 eurokoa da. Horri dagokionez, esan beharra daukat irmoki uste dudala, azken kapitulu hori berrikusteko garaia iritsi dela, kontratatutako zerbitzu horien azterketa egite aldera. Ekitaldiz ekitaldi zenbateko horiek bere horretan uzteko moduan al gaude? Gutxienez, azterketa bat merezi dute.

Bestalde, guztiok dakigun bezala, Udalak diru-laguntzak ematen dizkie kultur, kirol eta euskara arloetako elkarteei, eta familiei, interes orokorreko jarduerak sustatzearren.

Aurrekontuaren zati garrantzitsu bat **gizarte zerbitzuetarako gastua** da. Hain zuzen ere, 4.130.447 euroko gastua, hau da, aurrekontu osoaren % 20, besteak beste, honako zerbitzu hauetarako: etxez etxeko arreta, gizarte larrialdietarako laguntzak, Berdintasun Arloa, Lanbide Hastapeneko Ikastetxea. Horrek frogatzen du udal gobernu honek beharrik gehien dutenei zuzendutako

zerbitzuak zaindu eta mantentzearen aldeko apustu argia egiten duela. Ez dut aipatu gabe utzi nahi gizarte larrialdiei buruzko partida; litekeena da, aurreko ekitaldietan bezala, partida hori handitu behar izatea. Horretan ere “badugu lana”. Eusko Jaurlaritzak laguntza gehiago eman behar du programa horretarako, haren eskumenekoa baita, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren arabera. Bestalde, aurreratu nahi dut, Eusko Jaurlaritzak egindako talka-plana dela-eta –une honetan udalek osatzeko zorian dagoena (7 Gipuzkoan, besteak beste, Pasaia)–, jarduketa berriak bultzatuko direla, ekonomia suspertzeko, enplegua sortzeko eta gizarte-garapena hobetzeko. Horri buruz... “hitz egingo dugu”.

Halaber, nabarmendu beharra dago etxez etxeko laguntza zerbitzuaren partidan igoera izan dela: 926.000 eurokoa da partida hori, hau da, 2019an baino % 10,24 handiagoa. Partida horren xehetasunak dagokion sailak egindako txostenean jasotzen dira.

SARRERAK atalari dagokionez, adierazi behar da Udalaren sarrera arruntak % 3,87 igo direla. Udalak finantziazioaren % 62 Aldunditik jasotzen du, Udalen Finantzaketarako Foru Funttsaren bidez, finantziazio ez-finalista gisa eta helburu jakinetarako diru-laguntzen bidez (GLL, etxez etxeko laguntza, kirolak, kultura...).

Bestalde, sarreraren zati bat zerga eta tasetatik dator, hain zuzen ere, udalaren sarreraren % 37; hortik ondoriozta daiteke Zerga Ordenantzek eta Aurrekontuak harreman zuzena dutela. Nola iritsi gaitzke Aurrekontuaren parte diren eta herritarrei zuzenduta dauden zerbitzu eta programa horiek eskaintzera, batzuek goratzen duten 0 igoera zerga-politikarekin? Zaila? Ez, soilik ezinezkoa.

2019ko aurrekontuei buruzko alkatearen memoria hasi nuen esanez ordurako udal mugen gatazkari buruzko epaia izango genuela. Ezin izan zen. Oraingoan ere ez. Baina uste izatekoa da 2020an epaia izango dugula, eta hori udal nahien aldekoa bada, gauzak oso bestelakoak izango dira.

Foru Funttsari dagokionez, hainbat txostenetan jasotzen den bezala, eta aurrekontua aurkezteko garaian aipatu nuen moduan, ez dugu esleitu Aldundiak egindako aurreikuspen osoa. Aurreko legealdiko ekitaldi guztietan izan dugun irizpide berbera erabili nahi izan dugu: aurrekontu-zuhurtziaren irizpidea. Argi izan behar dugu kontzeptu horri dagozkion funtsak itzultzeak Udal honi zer ekarriko liokeen. Jada ez gara beste gobernu batzuekin bizi, eta egiaz uste dut ez dugula akats berbera egiten lagundu behar.

Kontzeptu horrekin berarekin jarraitzearen, aurreko legealdian ezin izan genuen Pasaiarentzat diskriminazio positiboa lortu. Ohartarazi nuen. Ez zen lan erraza. Ez dut amore emango. Ez zait axola zer izen ematen zaion: diskriminazio positiboa, konpentsazioa... ez zait batere axola. Udalerrri honek arazo estruktural serioak ditu, eta “norbaitek” arindu beharko lituzke arazo horiek. Soilik JUSTIZIA da.

Beste behin ere agiri honek gogoetarako eta aldarrikapenerako agiri gisa balio dezan nahi dut. Gure azaro estrukturalak ezin dira konpondu, baina bai arindu; baina beste administrazio horiek iritzi berekoak izatea behar dugu. Egunen batean aurrekontuekin batera doan alkatearen memoriaren bukaera aldatuko dugulako uste osoa dut.

2019ko azaroaren 4an

Izenpetua:
Izaskun Gómez Cermeño
Alkatea

MEMORIA DE ALCALDÍA PRESUPUESTOS 2020

Quienes conocen las cuentas municipales, saben la dificultad permanente de afrontar el gasto corriente con el ingreso corriente. Esa labor que tiene su momento más álgido a la hora de presentar unos Presupuestos, se vé “agravada” cuando se trata de encontrar recursos para realizar inversiones.

En el caso que nos ocupa, el Presupuesto de 2020, las inversiones ascienden a 800.200 euros, lo que supone un 3,85% del Presupuesto del Ayuntamiento. Esta cantidad, ¿es elevada?, ¿es escasa?. Cada cual mostrará su parecer a este respecto pero lo que sí es un dato objetivo es que “esta vaca no da para más”.

Entre las **inversiones** que contempla este Proyecto de Presupuestos, mencionar actuaciones en el entorno del Palacio de Andonaegi así como alguna intervención puntual en el propio edificio, por un importe de 100.000 euros, la rehabilitación de diferentes edificios municipales los cuales están dirigidos a los servicios que proporcionamos a determinados colectivos, como Hogares de Jubilados, Ludotecas..., una partida para la mejora de los parques infantiles del municipio, partidas para la pavimentación de nuestras calles, es decir, proseguir acometiendo mejoras en este programa, tras la inversión de 115.000 euros realizada en el 2019 y fruto del proceso de los presupuestos participativos, inversiones en el servicio de aguas y una aportación para el saneamiento de Donibane de 100.000 euros, inversión que tras muchos años “en cartera”, en este 2020 pueda iniciarse. En breve, confío en que tengamos buenas noticias

Como Alcaldesa, es triste no tener en mi mano la decisión de apostar por una determinada política u otra. No tener en mi mano, poder decidir, las áreas, programas, en definitiva, las políticas a priorizar en un tanto por ciento elevado y, ello se debe, a que las “habas están contadas” y siempre, lo han estado. No me cansaré de repetirlo y no me cansaré de buscar, y espero que algún día encontrar, una solución. De ahí el hecho de que salvo la puesta en marcha de algún programa puntual, de algún aumento o reducción concreta de una partida, el grueso de los diferentes Presupuestos de todos los Gobiernos municipales, sean muy muy similares como en más de una ocasión he manifestado. En definitiva, no se pueden recoger las dotaciones y asignaciones deseables pero es con lo que tenemos que “lidiar” desde hace muchos años, demasiados, en nuestro municipio

Sin embargo, sí hay aspectos que deseo destacar. El Presupuesto para el ejercicio de 2020, asciende a la cantidad de 20.791.436 euros, lo que supone un incremento del 3,87 % respecto al Presupuesto de 2019.

En el apartado de **GASTOS**, he mencionado parte de las inversiones que se contemplan en el mismo. Añadir en este epígrafe que a lo largo del año, se trabajará de forma intensa en obtener financiación adicional de otras Administraciones, siguiendo la misma senda que este Gobierno se marcó a lo largo de la pasada legislatura y que siempre ha dado sus frutos, aunque algún portavoz municipal los tache de “parches”.

En este mismo apartado de los gastos, señalar que además de las inversiones, el Ayuntamiento presta una serie de servicios a la ciudadanía, los cuales, por un lado, unos, se realizan a través de personal propio, lo cual conforma el Capítulo 1 y que asciende a 9.603.632 euros y, por otro, contratando otros gastos y servicios, los cuales conforman el Capítulo 2 y que ascienden a 6.974.029 euros. A este respecto, debo señalar que creo firmemente en que ha llegado el momento de proceder a una revisión de este último capítulo con el objeto de proceder a un análisis de estos servicios contratados. ¿Estamos en posición de mantener estas cifras ejercicio

tras ejercicio?. Cuanto menos merecen un estudio

Por otro lado, el Ayuntamiento, como por [todo@s](#) es conocido, realiza transferencias a entidades culturales, deportivas, euskara, ayudas a familias para fomentar actividades de interés general.

Una parte importante del Presupuesto es el **gasto** destinado a **Servicios Sociales**. El gasto destinado a estos Servicios entre los que se incluyen el servicio de Atención Domiciliaria, la Ayudas de emergencia social, el área de Igualdad o el CIP, entre otros, asciende a la cantidad de 4.130.447 euros, lo que supone el 20% del total del Presupuesto. Esta es la prueba de que este Gobierno municipal apuesta claramente por preservar y mantener servicios destinados a las personas más desfavorecidas. No quiero obviar la partida relativa a las Ayudas de Emergencia Social, y que posiblemente, como en ejercicios anteriores, sea preciso incrementar. En ello, también "hay trabajo". El Gobierno Vasco debe sin más dilación, coadyuvar más en este programa que es de su competencia según la Cartera de Servicios Sociales. Por otro lado, quiero adelantar que, con motivo del Plan de Choque elaborado por el Gobierno Vasco y que en este momento, está en un punto de ser completado por los Ayuntamientos (7 en Gipuzkoa, entre los cuales de encuentra Pasaia), se impulsarán nuevas actuaciones para reactivar la economía, generar empleo y mejorar el desarrollo social. De esto..., "hablaremos".

Reseñar también el incremento llevado a cabo en la partida del **Servicio de Ayuda a Domicilio**, la cual asciende a 926.000 euros lo que supone un incremento del 10,24 % respecto del año 2019 y cuyos pormenores se encuentran reflejados en el Informe elaborado por el Departamento

Respecto al **apartado de INGRESOS**, señalar que los ingresos ordinarios del Ayuntamiento, se incrementan en un 3.87%. El Ayuntamiento se financia en un 62% de los ingresos que recibe de la Diputación a través del Fondo Foral de Financiación Municipal como financiación no finalista y otras subvenciones para fines concretos (AES, atención domiciliaria, deportes, cultura...)

Como parte de los ingresos, señalar que los impuestos y tasas suponen el 37% de los ingresos del Ayuntamiento, de lo cual, se puede deducir que las Ordenanzas Fiscales y los Presupuestos tienen una relación directa. ¿Cómo podríamos llegar a ofrecer estos servicios y programas que forman parte de este Presupuesto y que, como no puede ser de otra forma tienen como destinatarios a la ciudadanía con la política fiscal de incremento 0 que algunos enarbolan?. ¿Difícilmente?. No, sencillamente imposible.

En la Memoria de Alcaldía de los Presupuestos para 2019, la iniciaba con una mención al hecho de haber podido contar para esas fechas con el fallo de la Sentencia relativa al conflicto de las demarcaciones municipales. No fue posible. En esta ocasión tampoco, pero es de suponer que en el 2020 la habrá y si la misma, es favorable a las pretensiones municipales, las cosas serán diferentes.

Respecto al **Fondo Foral** señalar tal y como consta en los diferentes informes y como mencioné a la hora de presentar estos Presupuestos, no hemos consignado la totalidad de la previsión realizada por Diputación. Hemos querido mantener el mismo criterio que ejercicio tras ejercicio mantuvimos a lo largo de la legislatura anterior; *el criterio de prudencia presupuestaria*. Debemos ser conscientes de lo que supondría para este Ayuntamiento tener que proceder a la devolución de fondos por este concepto. Ya lo vivimos con otros Gobiernos y, sinceramente, creo que no debemos contribuir a cometer , a mi modo de ver, el mismo error

Siguiendo con este mismo concepto, no fue posible en la legislatura anterior conseguir una discriminación positiva para Pasaia por este concepto. Ya lo avisé. No era tarea sencilla. No me rindo. Me es indiferente el nombre que se le dé; discriminación positiva, compensación... me es totalmente indiferente. Este municipio tiene unos serios problemas estructurales que "alguien" debería paliar. Simplemente es JUSTICIA.

Una vez más, quiero que este documento sirva como documento para la reflexión, como reivindicación. Nuestros problemas estructurales no pueden ser eliminados, pero si paliados, pero necesitamos que otras Administraciones compartan esta aseveración. Solo espero que algún día esté en disposición de poder variar el final del documento de la Memoria de Alcaldía que acompaña a los Presupuestos.

4 de noviembre de 2019

Fdo: Izaskun Gómez Cermeño
LA ALCALDESA